


MENDIA, LIRAIN ZAPIETAN

LA ELEGANTE MONTAÑA

FOULARD DELLE MONTAGNE



Bilbao Mendi Film Festivalaren 10. edizioko erakusketa

Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik




Euskal Museoa, Bilbo

2017ko azaroaren 20tik 2018ko urtarrilaren 28ra

Prentsaurrekoan partaideak:

- BFA: Lorea Bilbao, Euskara eta Kulturako Foru Diputatua
- Museo della Montagna: Cristina Natta-Soleri, erakusketako komisarioa
- Euskal Museoa: Sorkunde Aiarza, koordinatzailea
- Mendi Film Festival: Jabier Baraiazarra, zuzendaria

Asociación cultural Mendi Film Festival Elkartea

 Edif. Ensanche. Plaza Ensanche, 11. 48009 - Bilbao - (Bizkaia) - SPAIN
 info@mendifilmfestival.com
 www.mendifilmfestival.com



Mendia, lirain Zapietan-Foullard delle Montagne erakusketa azaroaren 20an, astelehena, inauguratuko da Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco-n, Bilbao Mendi Film Festivalaren 10. edizioko ekitaldi lez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik.

Fularrari buruzkoa da erakusketa. Hirurogeita hamar pieza hautatu baino gehiago biltzen ditu, Aldo Audisio, Laura Gallo eta Cristina Natta-Solero komisarioek aukeratuta. Turingo Museomontagna-ren bildumatik datoz guztiak; ia 200 alez osaturik dago aipatutako bilduma hori.

Eguneroko erabilera praktikorako sortu zen osagarri hori, eta munduko kultura guztietara zabaldu zen; XX. mendean, berriz, emakumeen unibertsoaren sinbolo eta ikur bilakatu zen. Kultuzko benetako objektua aurreko mendean, egunerokotasunera eta nornahik era dotorean erabiltzera eratorria garai berriotan. Erakusketak, orobat, bidaia bat proposatzen digu osagarri honen historian barna, eta, aldi berean, ibilaldi bat mundu zabaleko mendiei loturiko iruditerian.

Antzinakoenak aurreko mendeko 1920ko eta 1930eko urteetakoak dira, baina badira mende honetako fularrak ere. **Moda munduko izen handien** sormenak ederretsi daitezke erakusketan. Sortzaileen artean hor dira *Chanel, Hermès, Prada, Givenchy, Gucci, Céline, Krizia, Burberrys, Ralph Lauren, Escada, Gabrielli, Daphné, AAllard e Bogner,* eta beste hainbat. **Eta horiekin batera, gaur egungo markak:** *Lola Paltinger, Milleneufcentquatrevingtquatre, Étoile de Marie, Casali 71* eta *Charlotte Hudders,* batzuk aipatzearren. Badira ale soilagoak ere, oroigarri gisa erabiliak, zeta baino balio gutxiagoko ehunekin egindakoak.

Marco Ribettik koordinaturik antolatutako erakusketa honetan badira, orobat, **oroitzapenezko fularrak, neguko olinpiar jokoei buruzkoak,** hala nola 1952ko Osloko Olinpiar Jokoetarako egindakoa, edo 1968ko Grenobleko Olinpiar Jokoetarako eginiko seriea. Azken lan hau entzute handiko ilustratzaile eta margolariei enkargatu zitzaizen, Constantin eta Pierre Ambrogianiri, besteak beste.

Turingo Museo Nazionale della Montagna eta Bilbao Mendi Film Festival Mendiko Zinemagintzaren Nazioarteko Elkargoko (International Alliance for Mountain Film) kideak dira. Harreman bikaina dute elkarrekin, eta horri esker gauzatuko da erakusketa hau, bakarra dena, Bilbon, Mendifilm 10. edizio seinalatuan: ***Mendia, lirain Zapietan*** Bilboko Euskal Museon.

Hautatutako erakustokia bera ere ezin aproposagoa da, **Bilboko Euskal Museoa**, hiri bihotzean, dagokion distira eta autentikotasuna emanaz. **Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilbao Mendi Film Festivala** arduratu dira horretaz, eta aldi berean **Euskal Museoak eta Museo Nazionale della Montagna** izan duten lanerako **koordinazioa mirestekoa izan da**, muntaiaz arduratu diren teknikariek maisuki egin dute lana, eredugarri. Osagarri eta pizgarri guztiak aintzat hartuta, artea eta mendiko kulturarekin dugun ezinbesteko hitzordu bat da erakusketa hau.

BILBAO MENDI FILM FESTIVAL, Zabalgune eraikina, Zabalgune Plaza 11, 48009 Bilbo // T: 657 719 668 / press@mendifilmfestival.com / www.mendifilmfestival.com

TURIN, MUSEO NAZIONALE DELLA MONTAGNA, Piazzale Monte dei Cappuccini 7, 10131 Turín

T: 0116.604.104 / stampa.pr@museomontagna.org / www.museomontagna.org